

TXOSTENA “WORLD KAFE”

“HELDUAK ZABALTZEN”

EIBAR ETA ERANDIO



AURREKARIAK

Jarraian jasotzen dugun informazioa Helduak Zabaltzen proiektuaren barruan kokatzen da. Adinekoentzako Gizarte Zentroak eta, oro har, pertsona adinekoen bizitza birpentsatzeko eta birmarrazteko ikerketa-prozesua da.

Euskadin, 125.000 bazkide baino gehiago eta 230 gizarte-zentro baino gehiago zenbatu ditu Euskofederpenek. Proiektu honetan, adinekoentzako zentroyen inguruko funtsezko eragileak deitu nahi dira, zerbitzu horiek egokitzeko, hobetzeko eta estrategiak bilatzeko.

Zentro horietan parte hartzeak onura hauek dakartza pertsonentzat: gizarte-harremanen sarea zabaltzeko aukera dute, horrek autoestimu pertsonala handitzen du eta bizi-kalitatea hobetzen lagundutzen du. Aldi berean, zahartze-prozesua hautemateko eta hautemateko moduan eraginez (Blechi, 2018). Duela urte batzuetatik hona, nabarmendu da garrantzitsua dela adinekoek erreferentzia-leku bat izatea, gizarte-bazterketaren ondorio negatiboak eta isolamendua prebenitzeko, bai eta haienzako baliabideak eskatzeko eta informatzeko ere.

Azken urteotan, gizartean gertatzen ari diren aldaketak direla eta, zentro horien egoera aztertzeko beharra sortu da, hobeto ulertzeko eta zentro eredia eraldatzeko lan-ildoak zehazteko. Arreta jarriko zaio adinekoak teknologia berrien erabileran trebatzeko prozesuari, izan ere, digitalizazioaren eragina kontutan izango dugu errealitate honen eraladaketa prozesuan.

HELBURUAK

HELDUAK ZABALTZEN EKIMENAREN HELBURUAK

Gune horien errealitatea ezagutzea eta Euskadiko Adinekoen Gizarte Zentroen eredu berri bateranzko aldaketa erraztea, egungo eta etorkizuneko adinekoen beharretara eta hurbileko ingurunearen beharretara egokitu ahal izateko, Covid-19aren krisiaren ondoriozko egoera eta egokitzapen digitalaren beharrak kontuan hartuta.

WORLD KAFEAREN HELBURUAK:

- EAEko hiru lurraldeetako gizarte-zentroak eta zentro horien erabiltzaileak topaketen bidez lotzea eta saretzea.
- Lantaldeetan giro parte-hartzailea eta sortzailea sustatzea.
- Erronka bakoitzerako estrategiak garatzeko funtsezko ideiak biltzea.
- Hainbat belaunaldiren artean eztabaida komunitario zabala sortzea, adinekoen zentro sozialak beren beharretara egokitzeko.



METODOLOGIA

Bi World Kafe egin dira, bana esperientzia pilotu bakoitzeko, eta bertan proposamenak aurkeztu eta kontrastatu dira, zentroen ekosistema hurbilaren parte hartzearekin kontatuz.

World Kafeei dagokienez, parte hartu duten zentroen hurbileko ekosistema dinamizatu eta hurbildu nahi izan da, hau da, bi herrietako zentroetara joaten diren pertsona guztiak, haien senideak eta auzoetako komunitate-eragileak parte hartzera deituak izan dira. Ekosistema zabalagora ere bai bidali zaio deialdia, hala nola adituak eta Euskadiko antzeko beste zentro batzuen eraldaketan parte hartzen dutenak ere gonbidatuak izan dira. Gainera adineko emakumeen elkarteak eta zentroen jarduerari lotuta ez dauden adinekoen elkarteak ere deituak izan dira.


Prozesuari eta prozesuan parte hartu dutenei garrantzia eta ikusgarritasuna emateko gunea da, ereduaren aberastasunean aurrera egiteaz gain.

Metodologia izan zen jatorri, adin, genero eta profil desberdineko 4 eta 8 pertsona arteko lantaldeak sortzea, lantalde teknikoak dinamizatutako 3 erronka desberdinen gainean elkarrekin lan eginez. Jardunaldiko lantalde teknikoa Matia Institutuko langileek osatu zuten, Alda2u, Eusko Jaurlaritza eta Aise kooperatibaren laguntzarekin, Erandioren kasuan. Hala ere, Eibarren kasuan Eibarko Udalak ere parte hartu zuen, eta dinamizazioa Eibarko Talde Sustatzaileko kideekin batera egin zen. Erraztasunak partaidetzaren orekaz arduratu ziren, eta ahots eta ekarpen guztiak entzun eta jasotzeaz.

Era berean, jardunaldian erraztaile grafiko bat izan zen, eta erronka bakoitzaren akta grafikoa egin zuen ondorioak jasotzerakoan, dokumentu honetan erantsitak daude.

EIBARREKO WORLD KAFEA

Eibarren egindako jardunaldian 7 erronka landu ziren. Hiru lantaldek aztertu zuten erronka bakoitza, eta 12-20 inguruko pertsonen ekarpenak jaso ziren. Ondoren, parte-hartzeari buruzko datuak ematen dira eta aurrerago erronka bakoitzean bildutako ideia eta proposamenak jasotzen dira. Eibarren honako parte-hartzea izan zen: 41 pertsona eta 8 dinamizatzaile bertaratu ziren. 41 pertsona horietatik % 67,65 emakumeak izan ziren, eta adinari dagokionez, %55,17 58 eta 71 urte bitartekoak ziren. 10 herritako pertsonek parte hartu zuten, gehienak, % 93,33 zehazki, Gipuzkoan bizi izan ziren, eta hortik % 64,29 Eibarko biztanleak izan ziren.



LANDUTAKO ERRONKAK

1.- EKINTZAK

Erronka honen helburua, gaur egun zentroetan **eskaintzen diren jarduerak** nola bizi dituzten eta **zein jarduera nahi edo behar** dituzten jasotzea da.

Jarraian lan taldeetan jasotako informazioa biltzen dugu:

Zahar-etxeei buruzko iruditegi kolektiboa aldatzeko beharra ikusten da. Honetarako, **“zentro sozial” edota “gizarte zentroak”** deitzea proposatzen da edota pertsona profil jakin batekin identifikatzen ez den izenen batekin deitzea.

Beste ahots batzuek **pertsona gazteagoak erakartzearen** alde egiten dute: ideia hori erronka gisa planteatzen da, eta helburu hori lortzeko, adineko gazteagoak erakarriko dituzten beste jarduera mota batzuk definitzea eta dinamizatzea proposatzen da. Era berean, **funtzionatzen duten jarduerak mantentzearen garrantzia** aipatzen da, baita aspalditik egiten diren kartak eta/edo bingoa mantentzea proposatzen da, izan ere, pertsona batzuek gustura egiten dituzte jarduera hauek.

Beharrezkoa da **jarduera guztiak koordinatzea** eta lokal egokiak izatea. Nolanahi ere, erronka nagusia erabiltzaile gazteagoak erakartzea da.

Era berean, erabiltzaileak hainbat zentrotara sartzeko aukera ematea planteatu da. Beharrezkoa da adinekoen zentroek **berrikuntzak egitea** (adibidez, gaixotasunekin lotutako hitzaldiak ematea aldatu zuten zentro baten kasua aipatu da. Hitzaldi edo jardura hauek hauengatik aldatu zituzten: lagunak egiteko moduak, sexualitatearen bizipena, bizi-testamentua, etab.)

Zentroetan estetika-zerbitzua izateko aukera aipatzen da; izan ere, autoestimua zaindatzeko garrantzitsua ikusten da. Estetika zentroetan oso ondo dauden pertsonak baitaude eta honek eragina izan dezake adineko emakumeengan eta haien autoestimuan.

Zentroak koordinatu eta batez ere errespetatu egin behar direla azpimarratzen da. Batek astearteetan dantza antolatzen badu, gainerakoek ez dezatela egin. Helburua da horietan guztietan **eskaintzen diren jarduerak zabaltzea (panfletoa).**

Beste proposamen bat ere egin zen: **adinekoen “mahai”, sare, edota komisia sortzeko aukera, bertan zentro guztiak bilduz**, baita elkarteak ere, honela sarea sortuko litzateke.

Pertsonak zuzendaritza-batzordeetan eta jardueren antolaketan inplikatzeko dauden zailtasunak azpimarratzen dira. Ildo horretan, aipatu da pazientzia izan behar dela eta ez dela pertsona horiek zentrorra sartu bezain laster erakarri nahi izan behar. Denbora eman behar zaie beren antolaketa eta funtzionamendua ezagutu dezaten.

Aurrekoarekin jarraituz, **batzar irekiak egitea** aipatzen da, pixkanaka beren lana ezagutzera eman dezaten, baina egia da urteko batzar orokorretara ez dela jende asko joaten.

Azkenik, **boluntarioritza sustatzeko** beharra adierazi zen.



2.- ETEN DIGITALA

Erronka horretan, **bizitzaren digitalizazioari** buruz hitz egiten da, oro har; adibidez: dirulaguntza eskatzerako orduan, hainbat kudeaketa egiterako orduan behar diren ezagutza digitalak nola eragiten dieten adinekoen bizitzari, begiratuko diogu.

Adinekoei digitalizatorako sarbidea errazteko eta gaitzeko proposamenak bilatuko dira.

Teknologia berriek aukera interesgarriak ekar ditzaketela aipatzen da, adibidez, beren zentroan ez dituzten beste **jarduera batzuk online jarraitzeko aukera** izatea.

Esan dute **prestakuntza falta handia** dagoela, baina, bestalde, baliabideak badituztela. Horregatik proposatu dute formatzaileak prestatzea. Adibide bat, La Caixaren kasua da, hainbat udalekin hitzarmena baitute. Eibarren, gaur egun, lau zentrotatik bakarrak du zibergela bat entitate horren programarekin. Ezinezkoa da digitalizazioa Eibarren zentralizatzea; izan ere, oso espazio luzea eta estua da, eta zentroetako erabiltzaile batzuek mugitzeko zailtasunak dituzte. **Zentro bakoitzean zibergela bat egon beharko litzatekeela** proposatu dute. Gainera, biztanleei buruz hitz egitean (27-28 mila biztanle), entitatearekin hitz egitea eta digitalizatorako finantzaketa gehiago eskatzea ere posible izango litzatekeela uste dute, aspektu horretan diru gehiago behar duen hiria baita. Horrela, diru horrekin formatzaileak prestatu ahal izango lituzkete, entitatearen helburuetako bat baita.

Biztuk zibergela eta hezitzaileak finantzatzen ditu. Enpresa bati ordaintzen diote prestakuntzaz arduratu daitezen, boluntarioekin harremanetan jarritz (Izarbide). Prozesu horrek funtzionatzen duela esan dute, baina boluntarioen gaitasunak, denborarekin, gero eta mugatuagoak direla aipatu da, zentro batzuetako erabiltzaileen antzeko adina baitute. Prozesuari buelta bat eman beharko litzaioke, funtzionatzen baitu, baina muga batzuk ditu.

Telefono mugikorraren erabilerari dagokionez, esan dute, oro har, jendeak uste baino gutxiago kontrolatzen duela, batez ere zuzendaritza edo junten mailan. Aipatutako adibide bat online formularioak egitea da, gero eta ohikoagoa dena, baina gai ez direla ikusten da oraingoz.

Uste dute beharrezkoa dela **digitalizazio-gaietan adinekoei laguntza eman diezaieketen adineko pertsona gazteenekin konektatzea.**

Bestalde, aipatu dute adinekoek arazo zehatzak izaten dituztela gai digitaletan eta **formakuntza eman diezaiekeen norbait nahi dute**, irtenbide bat eman diezaiekeena. Eibarko Beheko Lekua zentroan gaur egun zerbitzu hau eskaintzen dute ahal duten guztietan. Horren adibidea da pandemian, laguntza eskatzen zuen orori txertaketaren ordutegiak kudeatzeko eskeini zen laguntza. Adinekoak fidatzen dira laguntza eskaintzen duten pertsonaz, eta beren gakoak eta kodeak ematen dizkiete horrelakoak kudeatu ahal izateko. Baina erantzukizun handia da laguntza eskaintzen duen pertsonarentzat eta era berean pertsonak autonomoak izan beharko lukete.

Beraz, uste dute beharrezkoa dela **adineko pertsonen laguntzeko sail bat sortzea**, adinekoen behar guztiei erantzun ahal izateko. Saioan aurkeztutako adibide bat honako hau izan zen, Eibarko adinekoak, Donostiara joan behar izan zuten erretiroa kudeatzeko, Eibarko bulegoan konpondu beharrean.

Teknologia jakin batzuekin moldatzeko gai diren pertsonak diote ez direla ikasiak jaio eta beharrak berak behartu dituela ikastera. Pertsona bakoitzak jakin behar du zer ekarpen egin dezakeen, bakoitzaren gaitasunak desberdinak baitira. Baina, bestalde, mundu guztiak nolabait ekarpenak egin ditzakeela diote.

Funtsezkoa iruditzen zaie zentroetako batzordeak digitalki trebatzen hastea eta bigarren urratsa da gainerako jendea (nahi duena eta ahal duena) trebatzea.

Aipatu den beste puntu bat teknologia berrien arriskua da. Esan dute **oso erraza dela iruzurren batean erortzea** eta are gehiago adinekoentzat. Alde batetik uste dute beharrezkoa dela dauden arriskuez jabetzea eta arreta-mezua transmititzea. Baina oreka ere aurkitu behar da beldurrak teknologiekiko arbuioa eragin baitezake. Horren ondorioz, normalean zeregin telematikoa seme-alabei eskuordetzen zaizkiela esan dute eta hori ez dela komenigarria uste dute, nahikoa baitute daukatenarekin.

Adinekoek (eta adinekoak ez direnek) digitalizazioari eta teknologia berriei uko egiteko beste arrazoi bat da, hauek gailendu izana. Bat-bateko aldaketa azkarra izan da, eta kudeaketa batzuk telematikoki egin behar izan dira aurrez aurreko formatua aukeratzeko aukerarik eman gabe.

Era berean, **segurtasun falta pertsonalek** benetan dutena baino **gaitasun txikiagoa** dutela sinesteko bidea eman dezakete. Uste dute ezagun asko ez direla ausartzen teknologia berriak erabiltzera, **gai ez direla uste dutelako** (probatu gabe). Haien iritziz, beharrezkoa da pertsona jator bat esleituta egotea, patxadaz eta pazientziaz azalduko diena.

Soraluzen gai digitalez ardura daitezkeen erabiltzaile gazteagoak daudela esan dute. Izan ere, batzordean bertan ere informatika edo banka bezalako esparruetan lan egin zuten pertsonak daude eta beraz, beharrezko izapide batzuk egiteko gai dira. Eibarren aldiz, gazteenak zentroko bazkide izateko eta are gehiago batzarrean parte hartzeko uzkur direla aipatu da.

Horregatik aipatzen da borondate falta dagoela. Ezagutza gehien duten pertsonak ez dute batzordean sartzeko asmorik eta hau aldatzeko lanketa baten beharra ikusten dute. Ikastaro digitalei buruz hitz egitean, pertsona batek esan du nahiko galdua sentitu dela jende gehiegi dagoelako eta pertsona bakoitzak maila eta gaitasun desberdinak dituelako. Ikastaroak jendea prestatzeko aukera onak iruditzen zaizkiela ere esan dute.

KZGuneak ere aipatzen dituzte, eskaintzen dituzten ikastaroei buruzko informazio guztia bidaltzen dietela eta gustoko dituztenetan apuntatu daitezkeela. Gainera, beharrezkotzat jotzen duten ikastaro bat proposatzeko aukera, KZGuneek prestatu eta eskain dezaten.

Aurreko belaunaldietan analfabetoa zen gizartearen zati handi bat zegoen bezala, **orain analfabeto digitaltzat hartzen dute euren burua**. Horren aurrean, jarrera desberdinak daudela ikusten dute. Batzuek jarrera negatiboa dute eta edozein digitalizazio mota baztertzen dute. Beste batzuk, gogamena ideia berrietara irekita edukitzen saiatzen dira. Hala eta guztiz ere, esan dute aldaketa batzuk adineko pertsona gazteenentzat edo etorkizuneko erabiltzaileentzat izango direla. Baina aldaketarekin bat egiten ez badute ere, horrekin bizitzeko modua aurkitu behar dela.

Zailtasun teknologikoak daude eremu guztietan, hala nola Osakidetzaren adibidea. Uste dute **zentroak horrelako izapideetarako laguntza eta ezagutza eskaintzen den leku bat izan daitezkeela**. Proposatu dute

adineko pertsona gazteenek edo gaitasun handiagoak (edo prestatuagoak) dituzten pertsonak eskaintzea zerbitzu hori.

Digitalizazio-prozesuarekin modu adiskidetsuan hastea lehentasunezkoa dela uste dute eta argi ikusten dute oinarrizkoarekin hasi behar dela eta pixkanaka eboluzionatzen joan behar dela. Adineko pertsonak biniloetan musika entzutera ohituta zeudela aipatzen dute eta gaur egun hori mugikorrek eskaintzen duten zerbitzu bat da. **Zergatik ez irakatsi horrelako funtzionaltasunak gozatzeko?** digitalizazio-prozesua azkarregia izan dela eta ez lukeela horrela izan behar uste dute mahaikide batzuek.

Aipatu da Zumaian KZGuneak ikastaroak ematen dituztela eta lokal txikia izanik, formatuak ondo funtzionatzen duela. Ikastaroak hainbat gairi buruzkoak izaten dira eta bi ikastaro egin ziren eta jendea pozik atera zen (oinarrizko internet). Baina egia da baita ere, zaila dela jendeak izena ematea. Garrantzitsua da eskaintzen diren eta onura atera diezaieketen **doako zerbitzu** horiek aprobetxatzea.

KZGuneak oso espazio beharrezkoak direla aipatzen da eta horietan asko ikas daitekeela azpimarratzen dute. Baina, prestakuntzetara joaten diren pertsona gehienek ez dute aurrerapen teknologikoak egiteko desiorik eta horregatik **asko ahazten dute ikasten dutena**. Adineko jende gehiago zergaitik ez den horrelako formazioetara apuntatzen jakin nahiko lukete edo hau galdetzen diote euren buruari. **Borondate falta dagoela uste dute**. Gehienek jarrera negatiboa dute teknologia berriekiko.

Uste dute beharrezkoa dela **adineko gehienak oinarrizkoarekin ohitzea** eta gero gazteenentzat eskeintzea. Adibidez, Whatsapp bezalako tresnekin komunikatzeko gai izatea beharrezkoa ikusten da prozesuari jarraipena emateko.

Bestalde, adinean aurrera egin ahala, narriadura kognitiboa gertatzen da eta gero eta gauza gehiago ahazten dira ikasten direnak baino. Horregatik, oso garrantzitsua da horrekin bizitzen ikastea, larritasunik eta antsietaterik gabe.

Belaunaldien arteko talkaren gaia da hau eta bi belaunaldik bat egiten dute. Mundu guztiak dena jakin behar izateak aldaketa izugarria sortzen du. Baina aldaketa aldi baterakoa da, apurka-apurka arrakala hori estutuz joango da, baina beste bat sortuko da, prozesu ziklikoa baita. **Arrakalak beti egongo dira**, etengabe

eboluzionatzen baita hainbat eremutan. Garrantzitsua da zentroek ere aukera izatea eboluzionatzeko eta arrakala hauek lantzeko.

Garrantzitsua da zentroek laguntza eman ahal izatea **digitalizazio-prozesuaren zentzu emozionalean.**

Pertsonak prestakuntzarik ez izateagatik konplexuak senti ditzazkete.

Lan egin litekeen norabide berri bat prestakuntza emozionala da, egon daitezkeen arrakalei dagokienez.

Badakigu gertatuko den zerbait dela, arrakalak sortu sortuko direla eta beraz konsziente garen heinean,

prestatzen joan gaitzke, laguntza eskeiniz iristen denean.

Zentro bakoitzak gaitasun desberdinak ditu, batzuek gailu elektronikoak dituzte, beste batzuek ez dute ordenagailurik; batzuek Wifi sarea dute, beste batzuek ez dute wifirik eta abar. Baina uste dute zentroek laguntza eman behar dietela adinekoei gai digitaletarako.



3.- ADINKERIA

Erronka honen ildo, **adineko zentroen ikuspegi estereotipatua** murriztea da. Izan ere, gure iruditegian, adinekoen etxeak edo zentroak kartetan eta bingoan aritzeko espazio bezala ikusten ditugu. Gainera, **adinekoen inguruko iruditegian** pertsona ez-produktiboak, mendekoak, memoria-arazoak dituztenak eta abar... bezala ikusten ditugu, hau da, **adineko pertsonen ikuspegi negatiboa dugu**. Erronka horri ikuspegi erreal eta positibotik aurre egin nahi diogu, ematen dituen onurak eta espazio horien erabilera-aniztasuna ikusaraziz.

Proposatzen duten ekintza bat **sentsibilizazio-kanpaina** bat egitea da: parte-hartzaileen diskurtsoan ikusten da beharrezkoa dela herritarrok oro har **adinkeriaz kontzientziaztea**. Horretarako, funtsezkoak dira belaunaldi guztien artean **zahartzeari buruzko irudi bat zabaltzea, errealitatera egokituta eta ikuspegi positibo batetik**. Ildo bereko beste proposamen bat, zentroetarako **"ate irekiak" jardunaldi** bat sortzea izango litzateke, urtean zehar nolabaiteko **maiztasunez** egingo liratekeen jardunaldiak. Herritarrei irekitzeko ariketa gisa, ez bakarrik sartu eta espazioa eta zer egiten den ikusi ahal izateko, baizik eta baita jardueretan denbora mugatu batez parte hartzea ekarriko duen harrera bat egiteko ere. Espazioa ezagutzeak eta haren barruan zer egiten den jakiteak, jardueren esperimentazioarekin batera, pentsamoldea aldatzea eta **adinekoekiko eta gizarte-zentroarekiko aurreiritziak deseraikitzea ekar dezake**.

Uste dute beharrezkoa dela **komunitatera** eta beste **erakunde edo elkarte** batzuetara gehiago **irekitzea**. Beste pertsona batzuekin lankidetzan, adinekoen zentroa zabaltzen zaio gizarteari. Ez bakarrik erakundeak eta elkarteak aurkitzeko ariketa bat egitea, baizik eta ibilbide-orri bat sortzen hastea, elkarte bakoitza zertan aritzen den jakinda, haiekin lan praktikoa bat egiten hasteko ekintza bateratuak egiteko (dela beren burua ezagutarazteko eta estereotipoak apurtzeko aukera emango duten jardueretan lagunduz, dela sentsibilizazio-kanpainak eginez).

Laugarren ekintza interesgarri bat **erretirotik gertu dauden pertsonak dituzten estereotipoak apurtzea da**. Honetarako hainbat jarduera eskein daitezke lanketa hau egiteko. Adibidez, Eusko Jaurlaritzak eskaintzen zuena bezalakoa: **"Erretirorako prestatzeko ikastaroa"**. Erretiratzeko puntuan dauden pertsonak gerturatzeak, beste erronka batzuetan ere lagundu dezake. Adibidez, **batzarrak berritzeko** ere interesgarria izan daiteke pertsona hauen gerturatzea. Egunerokotasunean dinamismoa ekar dezakete.

Adierazi da garrantzitsua izango litzatekeela erretiroari/zahartze aktiboari buruzko ikastaroak eskaintzen dituzten erakundeekin lankidetzaz lortzea eta adineko zentroetan espazioak erraztea. Tipologia horretako ikastaroen eta zentroen arteko konexioak hurbilagokoa izan beharko lukete, zentro hauek alternatiba bat baitira erretiratu berrien bizitza antolatzeko eta aisialdia modu aktibo eta ahalbidetzailean erabiltzeko.

Ekintza erraz eta sinpleenetako bat lau **gizarte-zentroen** (eta Biztu koordinatzailearen) arteko **koordinazioa** da. Jarduerak modu planifikatuan elkarrekin egiteko. Taldean adierazten da adinekoak gehien batzen dituen jarduerak direla eta beraz, ahalegina egin behar da gizarte-zentroen arteko koordinazio handiagoa lortzeko eta Biztuk jarduera horiek guztiak abiarazteko eta ikusgarritasun handiagoa eskaintzeko. Horrela, **herritarrek oro har jakin dezaten gizarte-zentroek askotariko jarduerak abiarazteko** aukera ugari dituztela, tradizionalki espazio horiekin lotzen direnak baino.

Azkenik, adinarekin lotutako **estereotipoak hausteari** dagokionez, beste mota bateko esperientziak errepikatzea proposatu dute, beste udalerrri batzuetan gertatzen direnak bezalakoak. **Adibidez, Ordizian** ikastolaren, adineko zentroen gehi dibertsitate funtzionala duten pertsonen zentroaren eta emakumeen elkartaren arteko lankidetzaren bidez, kolektibo horietako bakoitzak zein liburu irakurri aukeratzeko, eta irakurri ondoren, elkartu egiten ziren bateratzeko eta elkarbanatzeko. Hasteko, profil bakoitzak historia interpretatzen du eta interesgarria da kolektibo bakoitzak liburu berari buruz duen ikuspegia. Herri honetan funtzionatu duen esperientzia da.

Gizarte **zentroek erakargarriago** egingo dituzten beste estrategia batzuk erabiltzea proposatzen da. Adinekoen zentroetara joaten ez diren pertsonak erakartzeko eta horrela adinkeria pixkanaka apurtzeko bideak eraikiko dira. Adibidez **izena aldatuko diegu** eta hedapen-kanpaina edo ekitaldi bat egingo dugu, izen berria aurkezteko. Jubilatuen etxea deitu ordez, beste izen batzuk bilatuko dira: adibidez zentro sozialak.



4.- SARE KOMUNITARIOA SORTZEA

Erronka honek beste erakunde batzuekin, udal-baliabideekin eta udalerriko elkarteekin **harremanak izateko moduari** egiten dio erreferentzia. **Lankidetzan** aritu, elkar osatu eta **sarean lan egin ahal izateko**.

Irekiera honek, jarduera berriak sortzea, pertsona gehiagorengana iristea eta harreman berriak ehuntzea ekar dezake. Bestalde, horrek aukera emango luke beren jarduerak beste espazio mota batzuetan garatzeko eta udalerrian eskuragarri dituzten **baliabideak baliatzeko**.

Era berean, **zentroei eta adinekoei buruzko aurreiritziak lantzea** eta gaur egun zentroetan parte hartzen ez duten adinekoen beste profil batzuetara iristea lortu daiteke

Jarraian, lantaldeetan sortu diren proposamenak eta hausnarketak jasotzen dira:


Parte-hartzaileek adierazten duten bezala, udalerriko beste erakunde edo elkarte batzuekin elkarlanean aritzeko ezinbestekoa da elkar ezagutzea, batzuek eta besteek egiten dutenari buruzko informazioa izatea eta

partekatzea. Horretarako, hainbat proposamen egin dira, hala nola **udalarekin koordinatzea**, udalerriko elkarte guztiei buruzko informazioa eman dezan, udalerrian dauden jarduera guztien katalogoa egin dezan eta hori eguneratuta izan dezan, eta erakundeek egiten dutena azaltzeko guneak edo foroak sortze proposatzen da.

Ezagutzeko eta partekatzeko helburu horrekin berarekin, **garrantzitsutzat jotzen da gizarte-zentroetan egiten dena ondo zabaltzea**. Horretarako, udalerrietan dauden komunikazio-kanalak baliatu beharko lirateke (udal-aldizkariak, irratia, kultura-agenda).

Halaber, “adinekoen kontseilua” aipatu da **elkarte guztiak elkarrekin erlazionatzeko gune gisa** eta proposamenen bat ere egin da, alegia, Udala arduratzea erakundeen informazioa eman eta partekatzeaz, bai eta informazio hori zabaltzeaz ere. Horrek aukera emango luke espazioak behar bezala kudeatzeko. Parte-hartzaile batzuen ustez, lan hori ez dagokio administrazio publikoari, baizik eta elkarteei beraiei edo, esan bezala, “**nagusiaren kontseiluari**”.

Bestalde, zentroek **sare-lana bultzatzeko** hainbat ekimen egin ditzakete, hala nola nagusien **lokalak udalerriko beste erakunde/elkarte batzuei eskaintzea hutsik dauden unean**, zentrotik kanpo jarduerak antolatzea edo auzoko edo herriko jaien antolaketan parte hartzea. Azkenik, nagusien zentroetako taberna, komunitatearen harreman-gunetzat hartzen da. Herritar guztientzat irekita baitago.



5.- ZERBITZUAK

Erronka horretan, gaur egun gizarte-zentroetan eskaintzen diren zerbitzuei buruz hausnartu nahi da, eta **zerbitzu horien erabilgarritasuna** ikusi. Horrez gain, zer zerbitzu izatea ondo legokeen eta eskaintzen diren zerbitzuei dagokienez zentroen arteko koordinazioari buruz hitz egin nahi da.

Adostasun handia dago baieztatzeko gizarte-zentroetan ezinbestekotzat jotzen den zerbitzua **kafetegia edo taberna** dela, baina zentro guztiek ez dute zerbitzu hori.

Eskaintzen diren beste zerbitzu batzuk podologia, ile-apainketa eta masajista dira. Lehenasunezkoa zein den eztabaidatu zen, eta aipatu zen, alde batetik, osasunarekin lotutako zerbitzuak ditugula, hala nola podologia eta masajista, eta baita estetikarekin lotura handiagoa duten beste zerbitzu batzuk ere, ile-apainketa adibidez.

Oso beharrezkotzat jotzen da, pertsonen autoestimuan lagun baitezake, batez ere emakumeenean.

Eibarren kasuan, zentro guztiek dituzte beren zerbitzuak edo izan ditzaten saiatzen dira, eta beharrezkoa da

gizarte-zentroyen arteko koordinazioa.

Bestalde, **leihatila bakarreko zerbitzua** izatea proposatzen da, zerbitzu bakarra baita laguntza behar duen pertsonari erantzuteko. Eguneroko bizitzako gaietan laguntza-zerbitzu hori eskaintzerakoan, datuen babesa eta informazio hori eskaintzen duenaren figura hartu behar dira kontuan.



6.- BARNE ANTOLAKETA

Hurrengo erronka **barne-gobernantzaren** ereduari buruzkoa da. Gaur egun, euskadiko zentro gehienak adinekoren elkarte batek kudeatzen ditu, zuzendaritza-batzordearen bitartez. Horrek erantzukizunen eta zereginen karga handia dakar pertsona-talde txiki batentzat, eta horrek gaitz handia dakarkie, eta, aldi berean, batzordearen erreleboa zailtzen du. Konpromiso eta ahalegin handia eskatzen du borondatezko jardura baterako. Gainera, nahi gabe ere, gainerako pertsonak erabakietan ez parte hartzea ekartzen du.

Erronka horrek **zentroetan kudeaketa parte-hartzaileagoa** lortzeko moduari buruz hausnartzea eskatzen du, zuzendaritza-batzordeek gaur egun duten gainkargari eta errelebo-faltari erantzunez.

Nagusien zentro sozialen **kudeaketa gutxi batzuen esku** geratzen da. Hau ez da adinekoen mugimendu asoziatiboan bakarrik gertatzen, mota guztietako elkarte eta mugimenduetan gertatzen da: kulturaletan, kirolean, gazteetan eta abar. Hitz gutxitan esanda: "**Alde guztietan gutxi batzuk arduratzen gara guztiaz, beti ari gara berdinak egiten**".

Era berean, adierazten da adineko pertsonen artean, belaunaldi berrienetakoak, hau da, erabiltzaile berriek ez dute erakargarria ikusten kudeaketa mota hau. Lan karga haundia eta ardura haundiko zeregin bezala ikusten baita. Zaila egiten da jende berria animatzea. Horregatik guztiagatik, **beharrezkoa da kudeaketa eta parte-hartzea antolatzeko modua aldatzea**.

Talde guztietan proposamen nagusia zentroen barne-kudeaketarekin jarraitzea izan zen, zuzendaritza-batzorde baten bidez, baina **lan-batzordeen figurak gehituta**. Zeregin jakin batetara bideratutako pertsona-talde txikiak aktibatzea interesgarria ikusten da. Horrela, erantzukizunak beste pertsona batzuen esku uzteko modua bilatuko da, eta, era berean, kudeaketan parte hartzeko moduak lortuko dira, zama handirik ez dakartenak. Hona hemen adibide batzuk: **txangoen batzordea, komunikazio batzordea, kultur batzordea...etab.**

Batzordeetan, minimo bi pertsonako taldeak osatzea garrantzitsua ikusten da, zama pertsona bakar batengan eror ez dadin.

Batzordeetan parte hartzeko pertsonak erakartzeko moduari dagokionez zera uste da. Nolabait interesa azaldu duten pertsonetatik hastea. Denok dakigu nork lagunduko duen eta haien bila goaz. **Bilaketa modu irekiagoan eta formalagoan egitea proposatzen** da, uste baitute posible dela ez identifikatzea, ezta pertsona batzuei parte hartzeko aukera ematea ere. Horretarako, hiru proposamen egin dira:

1. **Zentroko bazkide guztiei kontsulta formala egitea**, kudeaketa-lan batzuetan parte hartzeko prest egongo liratekeen eta lehentasunen bat duten galdetuz.

2. **Ordu-poltsaren bidez parte hartze sistema bat sortzea:** bazkideei galdetuko zaie ea zenbat ordutako ekarpena egin dezaketeen eta horren arabera ordu poltsa bat osatuko litzateke, partaideen parte hartzea bermatuz.
3. **Pertsonak zentroan sartzeko prozesua formalizatzea** (harrera edo sarrera prozesua) eta, prozesu horretan, kudeaketan parte hartzea interesatzen zaien identifikatzea, bai eta beren esperientzian eta interesetan oinarrituta egin ditzaketen zereginak ere.

Azkenik, talde guztietan partekatu den puntua honako hau da: zuzendaritza-batzordeetan hainbat aspektuk pertsonen parte hartzea zailtzen dute eta hauek lantzea beharrezkoa ikusten da. Hona hemen puntu aipatuena:

- **Partaidetza antolatzeke moduak arakatzea eta modu malguagoan lan egitea.** Beste egitura batzuekin (hala nola lan-batzordeekin) pertsona gehiagok parte hartzearen aberastasuna ikustea, parte-hartzea areagotzeko. Gauzak beste modu batetara egiten dituzten pertsonak onartzea eta ez mehatxu bezala bizitea.
- **Batzarreko kide izatearen irudia aldatzea.** Gainkarga eta erantzunkizunaren mezuak kontuz erabiltzea, izan ere, mezu hauek ez dute batere erakargarria egiten parte hartzea. Hori dela eta, adierazi da garrantzitsua dela zahartze aktiboaren ideari indarra ematea, izan ere, bertan parte hartzeak, helburuen lorpenak ematen duen gogobetetzea dakar eta gainera harreman berriak sor daitezke baita esperientzia berriak bizitu ere.
- **Parte hartzeko eta jarduerak egiteko modu berriekiko erresistentziak murriztea.** Uste dute juntak lehendik egiten ziren gauzak sistematikoki erreplikatzeko saiatzeko direla. Formak alda daitezkeela uste da eta gauza berriak egin eta probatu daitezkeela ere. Betikoa egitearen tendentziak zaildu egiten du profil berrien gerturapenak. Bukatzeko honako ideai hau aipatu da: “Gaizki dagoena ezabatu, ondo dagoena mantendu eta ez dagoena asmatu”.

- Lagundu eta parte hartu nahi dutenek badakite nola egin, eta beren erantzukizuna da batzordeari interesa erakustea. Beharrezkoa da kontsulta-moduak sortzea eta aukeral modu esplizituan eta pertsona guztientzat erakustea. Nahi gabe, geure buruari atek ixten ari gatzaizkio.



7.- ANIZTASUNA

Azken erronkan, zentro sozialetako **aniztasunari** buruz hitz egin da. Dibertsitate funtzionala, migratzaileak, erabakiak hartzerakoan genero-ikuspegia, etab. bezalako ezaugarriak kontuan hartuta, adineko pertsonentzako gizarte zentroetan nolako den aniztasun hau begiratu dugu erronka honen bitartez. **Nola egin zentroak anitzagoak? Anitzak al dira iada?** Behar eta interes ezberdinei nola eman erantzuna bilatuko da erronka honen bitartez.

Jarraian, lantaldeetan jasotako ideia nabarmenenak bilduko ditugu:


Zenbait pertsonak galdetzen dute ea adinduentzako zentroak **aniztasunarekiko proaktiboak** diren ala ez? Honen arira uste dute beharrezkoa dela **aniztasuna lantzen hastea** izan ere, urte batzuetan aniztasun handiagoa izango dugu.

Ilido horretan, jasotzen diren proposamen batzuek sarrera-prozesuak lantzeko beharra adierazten dute, esate baterako, "**Harrera Taldea**" sortuz, edo iristen diren pertsonen sakontasun gehiagoz galdetzea ea zer bilatzen duten zentroan? Zer eskaintzeko prest dauden?



Azken horrekin batera, eskeintzen diren ekintzak pentsatzea beharrezkoa ikusten da, izan ere, ekintza hauek pertsona anitzen erakarleak izan baitaitezke. Harremanak izateko espazio soziala, arrakalak hausteko elementua da. Aldi berean, **Gizarte Zerbitzuekin bi norabideko harremana** izatearen eta informazioa partekatzearen garrantzia azpimarratu zen.

Garrantzitsua ikusi da, **aniztasuna lantzerako orduan, ekintza eta jarduera ezberdinak pentsatzea**, pertsona anitzei begira, hau da, adin ezberdinentzako ekintzak, jatorri ezberdinak, gaitasun ezberdinak, etab.

Komentatzen dute, aniztasuna bultzatzeko, euren pentsaerari eta aurreiritziei kasu egin behar dietela, izan ere, honek eragina izango du zentroan. Hainbat hausnarketa piztu ditu eztabaida honek, eta euren buruei galdetzen diete **ea zentroak zein baloretan edo talde kulturean oinarritzen** diren. Proposatu dute, zentroetan hausnarketa espazioak irekitzea, euren baloreei buruz hausnartzeko. Bestetik aniztasuna bilatzen ea aktiboak diren ere galdetzen diote euren buruei, hausnarketa gisa. Azkenik, **euren arteko aniztasunari** begiratu diote eta uste dute oso garrantzitsua dela euren adin tarteen aniztasunari eta behar ezberdinei begiratzea, hau da, ez dituzte behar berdinak behatzen **65 urteko pertsona baten eta 80 urteko pertsona baten** artean.



*Nola hartu aniztasuna?
¿Cómo acoger la diversidad?*



MIGRATZAILEEKIKO
JARRERA

ACTITUD FRENTE
A PERSONAS
MIGRADAS


NUEVXS
JUBILADXS
JUBILATU
BERRIAK



ERANDIOKO WORLD KAFEA

Erandion, 6 erronka landu ziren. Eibarren bezala, erronka bakoitza 3 taldek landu zuten eta, beraz, erronka bakoitza 12-20 bat pertsona inguruk aberastu zuten. Jarraian, erronka bakoitzean parte hartzeari eta emandako ideia eta proposamenei buruzko datuak biltzen dira.

Parte hartzeari dagokionez, Erandioko 49 pertsona inguru bertaratu ziren. Datuak eman zituzten 49 pertsona horietatik, % 75,51k generoari buruzko datua eman zuen, eta partaidetza-berdintasuna egon zen. Adinari dagokionez, parte-hartzaileen % 71,42k datuak eman zituzten; datu horietatik, % 62,86 62 eta 76 urte bitartekoak dira. Erandioko partaideak 11 herritatik heldu ziren. Parte-hartzaileen % 91,89 Bizkaikoak izan ziren, eta horietatik % 38,24 Erandiotik etorri ziren.



LANDUTAKO ERRONKAK

1.- ADINEKO GIZARTE ZENTRO ETA UDALAREN ARTEKO HARREMANA

Altzagako gizarte zentroaren eta Erandioko udalaren arteko komunikazioa hobetzea da erronka hone funtsa. Honela, beharrak eta interesak hobeto detektatu eta udal baliabideak eta zerbitzuak martxan jarriko lirake. Komunikazio hau hobetzeak, onura handiak ekar ditzake.

Idea sinpleagoetatik, ideia konplexuagoetara doazen hainbat ekintza eta proposamen jasotzen dira ondoren:

Adinekoen zentro, alkatearen eta gizarte-langilearen arteko bilerak maiztasun jakin batekin programatzea proposatzen da (beste udalerrri batzuetan egiten diren bezala), beharrak, aldatu nahi diren gauzak, proposamenak edo nola hobetu aztertzeko.

Beste aukera bat litzateke "**Koordinazio egonkorrerako gune**" bat sortzea, honako eragile hauek osatua: adineko zentroko pertsona talde bat, alde teknikoa eta alderdi politikoa, eta pertsona bat edukitzea bilera hauetan landutako gaiak buruan izateko eta zergin bakoitzaren betetze-mailaren jarraipena egiteko. Ildo honetatik jarraiturik, **Adinekoen Kontseiluaren** figura sortzeko ideia proposatzen da. Kontseilu honetan euren behar eta interesak landuko lirateke.

Koordinazio-gune formaletatik harago, beste proposamen bat **adinekoak eta alderdi politikoa**, adibidez, **bazkari baten inguruan elkartzea** proposatzen da. Honek hurbiltze informala ahalbidetuko du eta bertatik beharrezko modu informalean tratatzeko aukera izan daiteke. Jaiak edota egun seinalatuak aprobetxatu daitezke honetarako.

Parte-hartzaileen ustez, udalak badu harremana nabarmen hobetuko lukeen estrategia martxan jartzeko aukera. Bata litzateke (udaletik) **zahartze aktiboan espezializatutako dinamizatzaile** baten figura sortzea, adinekoentzat lagungarri izango dena. Eskariaren arabera, baina onena batzorde bat sortzea litzateke, haiekin biltzeko (adibidez, hilean behin) eta behar komunak jorrazteko. Gainera, premia komunak dituzten beste elkarte batzuekiko harremana handitzea planteatzen da, horrela pertsona gehiagorengana iristeko (adibidez, emakumeen elkartearekin – batez besteko adin altua). Dinamizatzaile hori baliabideak bideratzeaz arduratuko da. Udalak boluntario-talde bat ere sor dezake udaletik, adinekoei gestioetan edo gizarte-zentroan laguntzeko.

Parte-hartzaileek adierazi zutenez, komenigarria litzateke gizarte-langilea astean behin edo bitan Alzaga Gizarte Zentroan egotea, adinekoei informazioa emateko eta mendekotasunarekin, hitzorduekin edo izapideak online egiteko laguntzarekin lotutako zalantzei buruz laguntzeko.

Udalak dituen baliabide edo zerbitzuei buruzko ate irekien jardunaldia proposatzen da, informazio hau osasun zentroetan eskaintzea ikusten dute.



2.- PROFIL GAZTEAGOAK

Erronka garrantzitsua da **persona gazteagoak** erakartzea, baita 50 urte edo gehiago dituztenak ere, interesa izan diezaieketen jarduerak abian jarriz eta haien erakundean parte hartzera bultzatuz. Agian pertsona horiek dira ideia berritzaileagoak emateko egokienak. Arazoa da perfil hauek pentsatzeko beste modu bat dutela, beste kultura bat. Pertsona gazteago hauek, interesatzen zaizkien ekintzak bere kabuz bilatzen dituzte, ezagutz eta baliabideak dituztelako eta ez dute beste inor behar hori antolatzeko.

Jarraian, erronka hori lortzeko bidean lan egiteko ideiak, estrategiak eta proposamenak bilduko ditugu.

Zaila da erronka horri buruzko proposamen zehatzak jasotzea, eta pertsona gazteago horiek ez egotearen arrazoiak eta ondorioak aztertzeko joera dute taldeek. Esan dute pertsona gazteenak zentroetara jarduera

zehatzak egitera hurbiltzen direla, hala nola pilates edo yoga, eta abar.

Errepikatzen den gai bat da **batzarrak berritzea zaila** dela, inork ez baitu konpromisorik ezta erantzunkizunik

hartu nahi. Bestalde, **kuotak kobratzeko zailtasuna azpimarratu da.**

Uste dute **hausnarketa bat egin behar dela gizarte-zentro baten misioari buruz** (zahartze aktiboa ahalbidetzea), erronka honi heldu ahal izateko; halaber, uste dute lan egin behar dela udal-zerbitzuek baliabideak jar ditzaten.

Horren adibidetzat jarri dute Portugaleten, gizarte-zentroak adin tarte desberdinetarako jarduerak eskaintzen direla. Batzar bat dago, bisitarien kezka jasotzen dituen eta Udaleko Adinekoen Kontseilura eramaten dituen.



3.- ERANTZUNKIDETASUN ETA PARTE-HARTZEA

Erronka honen helburua beste pertsona batzuen parte hartzea bilatzea da. Nola lortu, auzoak, udala edota zentroaren gertuko **komunitatea inplikatzeko**? Jarraian, lantaldeetan jasotako funtsezko ideiak, estrategiak eta hausnarketak bilduko ditugu.

Lantaldeetan, hasieran, egungo egoeraren deskribapena azaldu zen, eta, taldean aurrera egin ahala, ideia propositiboagoak eta sortzaileagoak atera ziren. Zentroetan zer egoeratan dauden aztertzerakoan, gehien errepikatzen den gaietako bat **batzarretan erreleboa aurkitzeko zailtasuna** da. Erantzukizuna beren gain hartzea, pentsatzea, dinamizatzea, zuzentzea eta pertsona asko zentroetara harrera egitera joaten direla eta dena eginda ematera ohituta daudela adierazi dute.

Kausa gisa indibidualismoa, norberekoikeria eta, oro har, parte-hartzearen kultura eskasa izendatzen dira. Parte-hartzaile gehienak bat datoz parte-hartzeak balio duela eta COVIDak egoera okertu duela esatean.

Laguntza puntuala iristen da, baina normalean pertsona berberak ematen dute. Bakardade-sentsazioa ere partekatua da. **Bakarrik gaude, komunitatetik eta elkarte-saretik bereizita**, egiten duten irakurketa da komunitate-zatia eraikitzeke dagoela.

Neurri handi batean partekatzen den diagnostiko horren aurrean, honako ekintza hauek proposatzen dira:

zentroak irekitzea, beste mota batzuetako elkarte gehiagorekin nahastea eta beste elkarte batzuekin **lankidetzan aritzeko** moduak bilatzea proposatzen dira.

- **Adinekoei buruzko iruditeria aldatzeko lan egitea.** Adinkeriari aurre egin eta honako ideia hau indarrez ekarri dute: “adinekoek oraindik ekarpen handia egiteko energia dugu”.
- **Adineko pertsona gazteenak hurbiltzeko** moduak bilatzea garrantzitsutzat ikusten dute. Hau egiteko, jarduera edo ekintzen bitartez erakarri daitezke pertsona hauek. Baita ere, interegarria iruditzen zaie, adin aniztasunaren ideia txertatzea zentroetan, **hainbat adinetarako jarduerak proposatuz**.
- Batzarraz aparte, beste **partaidetza formula** batzuk bilatzea eta martxan jartzea proposatzen dute, hala nola **tarteko organoak**, probatzea. Zenbait lekutan emaitza ona eman duten batzordeak, nahiz eta beti funtzionatzen ez dutela adierazi.

- **Ezagutzen transmisioa lantzea.** Zerainen, baserrietan bizi dira gehienak, eta lanean jarraitzen dute. Zerainen denboraren banku bat sortu nahi dute euren denbora eta ezagutza eskaintzeko, adinako pertsonak gure laguntza eskain dezakegu. Zerainen, esperientzia positiboa izan dute LandaLabekin. Proiektu horrek komunitateari buruzko datuak bildu zituen eta zaintzaileen komunitatea sustatu zuen herrian, “**betaurreko sozialak**” jantziz, adibidez okinak funtzio hori egin dezake. Hirietan eredu hau auzoka antola liteke.
- Azkenik, Arrasate, Legazpi, Basauri eta Donostia izendatu dira adinekoak udalerriko beste jarduera eta kolektibo batzuekin integratzeko jardunbide egokien adibide gisa.



4.- ESPAZIO FISIKOA

Espazio fisikoaren erronkaz hitz egiten dugunean, espazio horiek irisgarriago egiteko eta lokalen jarraitutasuna lortzeko estrategiak bilatzen ditugu.

Jarraian, gaur egun adinekoentzako zentroetako espazio fisikoak nolakoak diren azalduko dugu, alderdi hori hobetzeko hausnarketak eta proposamenak biltzeaz gain.

Aniztasun handia dago gizarte-zentroak osatzen dituzten guneen titulartasunari dagokionez. Zentro batzuen lokalak udalarenak dira, eta beste kasu batzuetan aurrezki-kutxenak, parrokiarenak edo Aldundiarenak ere badira. Kasu batzuetan, zentroek ez dute espazio propiorik, eta kultura-etxea edo elkarte gastronomiko bat bezalako espazioak erabiltzen dituzte.

Espazio fisikoa komunitateko beste eragile batzuekin partekatze modu bat izatea proposatzen da, hiru modutan:

- **Espazioa modu jarraituan partekatuz**, hau da, gune fisiko berean, gizarte-zentroaz gain, beste erakunde batzuek ere beren jarduera bertan izatea.
- Gizarte-zentroko **jarduerak udalerriko beste gune edo lokal batzuetan egitea.**
- Zentro sozialeko **espazioak aprobetxatzea, libre daudenean**, beste erakunde batzuek beren jarduera modu puntualagoan egin dezaten.

Horrela, belaunaldien arteko harremanak indartu daitezke.

Espazio fisikoaren konfigurazioak eta diseinuak eragina du bertan antola daitezkeen jardueren tipologian eta kopuruan, eta, beraz, **dibertsitate handiagoa ahalbidetuko duten espazio balioanitzak** izatea proposatzen da.

Gainera, espazio fisikoak adineko zentroen irudian eragiten dutenez, espazio fisikoa nola konfiguratu behar den planifikatzea proposatzen da, irudi hori hobetzeko eta **espazio erakargarri** hori egiten duten elementuak izateko (billarra, liburutegia).

Espazio fisikoa birdiseinatzerakoan ez lirerateke inbertsio handiak bakarrik beharko, aldaketa txikiek ere eragina baitute.

Azkenik, espazio fisiko horiek teknologikoki hornituta egon beharko luketela uste da.



5. FINANTZAKETA

Erronka honek **finantzaketa handiagoa** lortzeko moduak bilatzen ditu, zentrozen eta pertsonen beharrak asetzeko eta zuzendaritza-batzordeek beharrezkotzat eta interesgarritzat jotzen dituzten funtzioak eta jarduerak gauzatu ahal izateko.

Adinekoentzako zentro sozial gehien finantzaketa-iturri nagusia honako hiru aukera hauetako bat da:

- **Udalaren eta/edo beste administrazio publiko batzuen dirulaguntzak** (adibidez: aldundiak).
- **Bazkideen urteko kuotak.**
- **Jarduerengatik jasotako kuotak** (hileko prezioa eta/edo jarduera bakoitzean izena ematearena).

Finantzaketa-eredu horrek hainbat konplexutasun dakartza dirulaguntzen eskabidea eta justifikazioen kudeaketan, eta adierazten dute ez datorrela bat zuzendaritza-batzordeen borondatezko izaerarekin. Azken

batean, uste dute **burokratizazio handia** dagoela, eta, horren ondorioz, kudeaketa horiek gehiago dagozkiola profil profesional bati, eta ez adineko boluntarioen talde bati. Hitz gutxitan: batzuetan ez du konpentsatzen dirulaguntza eskatzea suposatzen duen lan guztiarekin eta jasotzen dugun diru apurrarekin. Hori egiteko banku batean lan egin behar izan dugu. *“Hau nire lan berrian bilakatu da”*.

Era berean, jarduerengatik ordaintzea behartzea edo bazkide-kuoten igoerak baliabide gutxi dituzten adinekoei arreta eman ahal izatea zailtzen du.

Horregatik, finantziario handiagoa lortzeko hainbat ekintza-proposamen egin ziren eta hemen jasotzen ditugu:

- Bazkide-kuotak eta jardueraren ordainketa, adinaren arabera bereizita: 80 urtetik beherakoen kuota txikiagoa da.
- Bazkide-kuotak eta jardueraren ordainketa, **pertsonen baliabide ekonomikoen arabera**. Horretarako, beharrezkoa izango litzateke udalaren inplikazioa, bai baliabide ekonomiko gutxien dituzten adinekoak identifikatzeko, bai jarduerak prezio merkeagoan eta are doan eskaintzeko.
- **Dirulaguntza osagarrien bilaketa**: bidaia-agentzien dirulaguntzak etab.
- **Finantzaketa-modu osagarri berriak**: tokiko kooperatiben gizarte-funtsak, erakunde pribatuen gizarte-ekintzak, etab.
- **Egungo finantzaketa-eredua bertan behera uztea**, eta jarduera guztien **finantzaketa udalaren** esku uztea. Kasu horretan, elkartearen batzarrak espazioak, inskripzioak eta jardueren koordinazioa soilik kudeatuko lituzke.
- Elkarreak kudeatutako jardueraz gain, **udalak kudeatutako beste jarduera batzuk ere sartzea** zentroan. Gaur egun beste espazio batzuetan egiten diren jarduerak edo adinekoen zentro sozialei lotutako elkarteekin elkarlanean sortutako jarduera berriak izan daitezke.
- Beste elkarte eta baliabide batzuekin jarduerak egitea, eta horrela **kostua murriztea**.

- **Prezio oso desberdineko jarduerak sortzea**, prezio handieneko jardueretako funtsak doakoekin erabili ahal izateko. Esate baterako, ingelesezko jarduerak sortzea bidaietarako, kultura-irteerak, kostuan irabazi marjena dutenak, eta horrela etekin horrekin beste jarduera batzuk egin ahal izatea.

World kafean zehar **eztabaida sortu zen** galdera honen inguruan: **Beharrezkoa al da kuota edo prezio bereziak egitea?** Erantzun nagusia baliabide ekonomiko urriak dituzten adinekoak zentroan mantendu ahal izateko bideak bilatu behar direla da eta era berean, haien nortasunaren babesa bermatzeko formulak identifikatu behar direla, konfidentziasuna zainduz.

Kasu batzuetan kudeatzeko egoera zailtzat jotzen zen, eta beraz berdintasunezko ordainketa unibertsala hobesten zen, beste pertsona batzuek puntu hori udalarekin batera aztertzea ezinbestekotzat jotzen zuten bitartean.

Era berean, behin eta berriz eztabaidatu zen ea adineko guztientzako prezio bakarra, haien egoera ekonomikoa edozein izanik ere, ez ote zen gizartearen adinkeriaren beste elementu bat, izan ere ideia honekin, onartzen da edo aurreikusten da adinekoek ekonomikoki beste adin tarteek baino egoera zailagoa dutela, hau kuestionatzen zen lan taldean. Gainera, nolabaiteko bidegabekeria ekar diezaike adinagatik zentro sozialen zerbitzuak (ile-apainketa, podologia, etab.) erabili ezin dituzten pertsonen, baliabide urriko pertsonen.



6.- HARREMANAK AURREZ-AURREZKOAK ETA DIGITALAK

Erronka honek **harremanak sustatzeko moduak eta estrategiak** bilatzen ditu, aurrez aurreko topaketetatik eta topaketa digitaletatik abiatuta. Adinekoak erraztea eta gaitzea, espazio digitaletik ere harremanak izan ditzaten. Adibidez, horrek erraztu egin lezake beste zentro batzuekin online bilerak egitea.

Jarraian, lantaldeetan izendatu ziren ideiak, gogoetak eta estrategiak bilduko ditugu:

Lehenik eta behin, **Gasteizko kasua azaldu** zen; izan ere, **komunikazioa aldetik, beste udalerrri batzuk baino aurreratua dago**. Gasteizko 16 zentroyen kasuan (eta horien 35.000-36.000 bazkideen kasuan), komunikazioari dagokionez, abiapuntua udalaren webgune bat da. Zentroyen kudeaketak komisioren bidez funtzionatzen du, eta komisiok sare sozial baten bidez (Whatsapp) komunikatzen dira. Bestalde, **komunikazio bide fisikoak mantentzen dituzte**, hala nola batzordeen eta/edo liburuxken arduradunen bilerak egiten dituzte. azi da egokiena dela. Bestalde, funtzionamendu hori beren zentro edo udalerrietan

ezin dela aplikatu adierazi da. Pertsona bakoitza, udalerrri bakoitza eta zentro bakoitza desberdinak dira, eta, beraz, premia desberdinak dituzte eta era desberdinetan funtzionatzen dute.

Beste zentro batzuetan, hala nola **Erandioko Altzagan, sare sozialak** erabiltzen dituzte, Whatsapp, zehazki, zentroko bazkideen arteko komunikaziorako (bai hedapen-zerrendak, bai jardueren araberrako talde txikiak). Baina udalerrrian dauden hiru elkarten arteko komunikazioari dagokionez, aipatu dute oso harreman gutxi dagoela eta interesgarria izan daitekeela hori sustatzea. Aipatutako beste kasu batzuetan, ia ez dago udalerrri bereko zentroyen arteko komunikaziorik.

Aitzitik, dauden komunikazio-baliabideak aipatu dira, eta baliabide horien eraginkortasunari eta horiek hobetzeko moduari buruz eztabaidatu da. Oro har, komunikazioak norabide bakarrekook dira, eta zentroyen arteko interkonexioa lortu beharko litzateke. Bide digitalen eta fisikoen konbinazioak helburu hori bultza dezakeela proposatzen dute, baina lehendik dagoenari eta funtzionatzen duenari gehituz. Alderdi fisikoan, zentroetako zuzendaritza-batzordea maiztasunez bildu beharko liratekeela proposatu dute.

Aipatu da **komunikazio digitala eta fisikoa konbinatzea** oso onuragarria izan daitekeela. Lehenengoak informazioa azkar eta publiko zabalago bati transmititzea erraztu dezakeelako, baina, era berean, adinekoak izanik, bide fisikook eraginkorrakook dira. Bizitza digitala haien zat arrotza den errealitatea baita.

Zentro, elkarte, udal eta herritarren arduradunak aldian-aldian biltzea proposatzen da, indarrak bateratzeko eta ideiak bateratzeko. Horrela, onura komuna lortuko da, aurrezpen ekonomikoa lortu daiteke, jarduerak koordinatuz, txangoak elkarbanatuz, etab.

Oro har, ondorioztatzen da **zentroyen artean komunikazio falta nabarmena** dagoela, eta lehentasunezkoa dela hori konpontzeko lehen urratsa ematea. Bide fisiko eta digitalen konbinazioak prozesua erraztu dezakeela aipatu da. Horretarako, interesgarria da dagoeneko komunikazio mota hori duten kasuen testigantzak ikustea eta entzutea, eta haien beharretara eta zentroyek zer eta nola egokitu dezaketan hausnartzea. Ikus ditzagun **adibide berezi batzuk:**

- **Basaurin**, hainbat elkarte komunikatuta daude. Lehen, udalerriko zentroak maizago biltzen ziren, baina orain, agian, hurbilekoak eta gai zehatzetarako bakarrik. Pixkanaka oreka bat aurkitzea interesgarria izan daitekeela esan dute.
- Herri batzuetan, **Erandion** esaterako, Udalak bidali ohi duen agenda bat dago, eta bertan argitaratzen da elkarte, zentro eta abarrek argitaratzeko azken eguna baino lehen bidaltzen duten informazioa. Gaur egun erabiltzen den baliabide bat da eta interesgarria da, baina aldebakarrekoa da. Norbaiti interesatzen bazaio, erantzun egingo du edo zerbait egingo du, baina prozedura ez dakitela adierazten dute. Beraz, informazioa transmititzean zentratzen den tresna bat da, baina ez dago bigarren urratsik, ez dago erantzunik.
- **Getxon**, web-orri bat sortzea oso baliabide interesgarri eta erabilgarritzat jo da. Gaur egun barne-komunikaziorako erabiltzen da, adinekoen zentroaren barruan, baina uste dute ideia ona litzatekeela zentroen arteko komunikazioari begira. Getxoren kasuan, boluntarioa izan da webgunea sortu duena (aurreko prestakuntza dela eta), baina, hala ere, boluntarioa den norbaiti web-orria eramaten irakasteko eta prestatzeko beharra ikusten dute, baina jarraitutasunez (nahiz eta hemen oraingoz barne-komunikaziorako baino ez den).

Zentroen arteko komunikazioa gai praktikoetan beharrezkoa dela planteatu dute. Hiru adibide aipatu dituzte: txangoak bezalako ekitaldietan parte-hartze handiagoa lortzea eta, beraz, aurrezpen ekonomikoa sortzea; beste udalerrri batzuk bisitatzea, bertako jendea bisitatuz eta bertako jendea ezagutzea eskatzen duten jarduerak; irakasleren batek baja emanez gero, gertuko zentroen artean komunikatzeko eta elkarri laguntzeko aukera izatea.

Aipatu dute elkarte batzuk daudela, hala nola Nagusiak Bizkaian, eta horien eginkizunetako bat zentroen arteko interkonexioa dela. Baina, baieztatzen dute emaitzak ez dituztela ikusten aipatzen dituzten adibide praktikoetan (aurreko puntua). Beren iritziz, kudeaketa hori legez existitzen den federazio edo erakunderen batek eraman beharko luke. Helduak Zabaltzen proiektua aukera argia dela eta zentroen arteko interkonexioa sustatuz konponbidea eman dezakeela ikusten dute.

zentroen informazioa ikusi nahi duen edozein pertsonaz gain, zentroen ordezkariak komunikatuta egon ahal izateko, web orri bat sortzea proposatzen da. Horrela, zentroen arteko harremana hurbilagokoa izan daiteke eta bizilagunak ezagutzeko aukera izan dezakete.

Halaber, adierazi dute beharrezkoa dela **zentroen eta udalaren arteko harremana hobetzea**; izan ere, adibide argi bat jarrita, batzuetan bi erakundeek proposatutako jarduerak gainjartzen dira. Gaur egun baliabiderik edo ezagutzarik ez duten zentroetan komunikazio-bide digitalak txertatzeko aukeraz hitz egitean, zentroko pertsona batzuen prestakuntza beharrezkoa dela adierazi dute. Kudeaketa askoren digitalizazioa zaila izaten ari da adineko zentro guztietan, eta ez dute beste konplikazio bat gehitu nahi. Adierazi dutenez, proiektu honekin zentroetako zuzendaritza aprobetxatu eta formatu ahal izango genuke, eta bi arazo konpondu aldi berean.

Adineko zentro sozialen digitalizazioa planteatzerakoan, errepikatzen den beste gai bat baliabideena eta prestakuntzarena da. Zentro bakoitzaren baliabideak mugatzaile handiak dira komunikazio digitalari dagokionez, zentro batzuek ez baitute ordenagailurik. Era berean, **zentro batzuetan pertsona bat dago** (udaleko teknikari bat edo ikastetxeko boluntario bat) **komunikazioa** kudeatzeko, batez ere digitala; beste batzuetan, berriz, ez, eta, beraz, ahalegin handia egingo litzateke, edo ezinezkoa ere izan liteke.

Hainbat mahaitan errepikatu den gaia da **baliabide faltaren pertzepzio** hori, eta funtsezkoa ikusten dute horiek ez dituzten **zentroei ordenagailuak ematea**. Adineko zentro batzuek beren dirua jarri behar izan dute horretarako, baina ezin dutenek eskubide bera dute eta norbaitek ordenagailuak eman beharko litziekeela adierazten dute, adibidez.

Zentroen prestakuntza falta handia dago. digitalizazioa bat-batean iritsi da eta bat egin nahi dugu, baina denek ezin dutela egin diote, urrun samar harrapatzen dituelako. Zuzendaritza-batzordeari prestakuntza ematea proposatu diote, ekintza digitalez arduratuko diren pertsonak egon daitezen, hala nola zentroen arteko online komunikazioa mantentzea. “Guk ez dugu gai horietaz arduratuko den teknikaririk” diote batzuek.

Aurreko puntuarekin jarraituz, ikusi da beharrezkoa dela **zentro bakoitzeko pertsona bat prestatzea** komunikazioa kudeatu ahal izan dezaten (fisikoa eta/edo digitala). Horretarako, biak behar dira, finantzaketa eta borondatea. Prestakuntzari dagokionez, ezagutzak trukatzeko kasuren bat aipatu da. Kasu horretan, bazkideek beraiek eskaintzen diote gai bati buruzko ezagutza beste zerbitzu baten truke (beste eremu bati buruzko ezagutza, adibidez).

Bestalde, epe laburrerako, adierazten dute **komunikazio bide konbinatuak (fisikoa eta digitala)** oso erabilgarriak izan daitezkeela zuzendarien arteko lehen komunikazio-urratsa azkarra eta erraza izan dadin, hala ere, gero zentroetako erabiltzaileengana iristeko, oraindik gehien funtzionatzen duena ahoz ahokoa da, eta ez litzateke aldatu behar. Esan dute **beste komunikazio-modu batzuk batu daitezkeela, baina funtzionatzen duena kendu gabe.**

Era berean, aurreko bi puntuak kontuan hartuta, konponbidea bilatu beharko litzateke baliabide digitalik gabeko zentroen arteko online komunikazioaren lehen urratsean inplikaturik egon ahal izateko, kasu espezifiko horietarako digitala eta fisikoa dena bilduko dituen euskarriren bat.

HARREMANAK AURREZ-
AURREZKOAK/DIGITALAK



RELACIONES FÍSICO-
DIGITALES

FÍSICO
FÍSICO + **DIGITAL**
DIGITALA

Reuniones
Bilerak Web
Webgunea

ALDE BAKARREKO
KOMUNIKAZIOA

COMUNICACIÓN
UNILATERAL



BESTE MODU
BATZUK
OTRAS MANERAS



NORANJSKO BIKOA
BIDIRECCIONAL

!! OPORTUNIDAD AUKERA !!

**HELDUAK
ZABALTZEN**



BARRERAS HESIAK



PRESTAKUNTZA-BALIABIDEAK
RECURSOS FORMACIÓN



FALTA
COMUNICACIÓN
ENTRE
CENTROS

ZENTROAK ARTEKO
KOMUNIKAZIOA
FALTA DA

ONDORIOAK

Bi World Kafeetan, 13 erronka landu dira, eta horietatik ideia eta lan-bide asko atera dira, dagoena hobetzen jarraitzeko. Lehen ondorio orokor gisa, **sarea sortzen jarraitzeko beharra jasotzen da**, zentro eta eragile guztiak konektatzen jarraitzeko eta planteatutako erronkak lantzen jarraitzeko. Jarraian, erronka bakoitzari buruzko ondorioak bilduko ditugu, orain arte bildutako guztia laburbilduz:



1.- EKINTZAK

Jarduerak dibertsifikatzea, pertsonen beharren, interesen eta kezken arabera. Garrantzitsua iruditzen zaie **jardueren arloan berritzea** eta **zentroak koordinatu** ahal izatea, jardueren programa ez gainjartzeko eta elkarrekin osatzeko.

2.- ETEN DIGITALA

Pertsona eta zentroyen digitalizazio prozesua errazteko **baliabideak** beharrezkoak dira. Aldaketa oso azkarra izan da pertsonentzat eta **oinarrizko trebakuntza** behar dute, baita laguntza ere hainbat kudeaketa egiteko, izan ere, jectio asko digiitalizatu egin dira.

3.- ADINKERIA

Adinekoei eta zentroi buruzko iruditeria kolektiboa aldatzea konplexua da, baina **ezinbestekoa, eta**, beraz, estrategia oso bat behar da. Horretarako, sentsibilizazio-kanpainak egitea, komunitateari gehiago irekitzea eta zentroyen izena aldatzea bezalako ekintzak izendatzen dira, zentroak erakargarriago bihurtzearen eta zahartze aktiboa sustatzearen garrantziaren estereotipoak hausteko. Zentroyen eginkizunetako bat estereotipoen eta estigmaren aurka borrokatzea da.

4. - SARE KOMUNITARIOA SORTZEA

Erronka honi aurre egiteko, **udalarekin eta zentrotik gertu dauden elkarteekin sarea** ehuntzen jarraitzearen garrantziaz hitz egin da. Garrantzitsua ikusten da jarduerekin koordinatzea eta hortik abiatuta harremana sortzen jarraitzea. Erronka hori garatzen jarraitzeko, komunitateak, oro har, eta zentroek, bereziki, **ingurunearekin harremanetan** jartzeko modua bilatzen jarraitu behar dute, adibidez, auzoko jaietan parte hartuz.

5.- ZERBITZUAK

Ondorio gisa, ezinbesteko zerbitzutzat hartzen dira taberna, kafetegia, podologia eta ile-apaindegia. Garrantzitsua iruditzen zaie **zentroak koordinatzea**, baliabideak eta zerbitzuak hobeto aprobetxatzeko.

6.- BARNE ANTOLAKETA

Erronka horretan, garrantzitsua ikusten da dualtasuna (bazkidea/erabiltzailea eta zuzendaritza-batzordeko kidea izatea) gainditzten duten **barne-antolaketarako beste modu batzuk aztertzea**, erantzukizun handiagoa eta parte-hartze pluralagoa errazteko. Horretarako, proposamen nagusia bitarteko organoak sortzea da, hala nola helburu zehatzetara bideratutako lan-batzordeak. Parte-hartzea sustatzeko, kontsulta formal gehiago egiteko aukera ikusten da, ordu-poltsak sortzea eta bazkideak aktiboki parte hartzera deituak izatea. Gainera, garrantzitsua da harrera- edo sarrera-prozesuak lantzen hastea.

7.- ANIZTASUNA

Gizarte Zerbitzuekin bi noranzko harremana izatea garrantzitsua da, eta, horrez gain, sarrera-prozesuak sakonago lantzea. Bestalde, garrantzitsua ikusten da adineko pertsona gazteen eta zaharrenean arteko adin-tartea lantzea, baita **adinekoen profil berrien etorrera aurreikustea** ere, pertsona migratuen kasuan bezala.

8.- ZENTRO ETA UDALEN ARTEKO KOMUNIKAZIOA

Ondorio gisa jasotzen da garrantzitsua dela **aldian-aldian bilerak egitea** edo udalekin koordinazio egonkorrerako gune bat izatea, baita **modu informalekoak bilatzea** ere, hala nola, festetako bazkariak, harremanetan egoteko.

9.- PERFIL GAZTEAGOAK ERAKARTZEA

Asko errepikatu da honako ideiaia hau: belaunaldien nahasketa bermatzen duten zentroak egiteko modua bilatzea. Jardueretan ere, parte hartu ahal izatea adina mugarri izan gabe.

10.- ERANTZUNKIDETASUNA ETA PARTE HARTZEA.

Parte-hartzea sustatzeko, beharrezkoa ikusten da **zentroak komunitatera irekitzea** eta intergenerazionalitatea beste behin bilatzea. Barne-antolamenduaren barruan, kudeaketako **bitarteko organoak** sortzeko moduak ikusi.

11.- ESPAZIO FISIKOA

Zentro bakoitzak espazio fisikoarekiko kasuistika desberdina duela kontuan hartuta, argi ikusten da garrantzitsua dela **espazioak beste erabiltzaile, elkarte eta erakunde batzuei irekitzea**, partekatzeko ideiarekin. Garrantzitsua da **espazio erakargarriak eta balioanitzak** sortzea, askotariko erabileretarako balio izan dezaten. **Intergenerazionalitatearen** garrantzia errepikatzen da berriro.

12.- FINANTZAKETA

Gaur egungo finantzaketa-sistemak zailtasun ugari dakartza zentroetan, hala nola dirulaguntza publikoen eskaeren **burokratizazio handia**, finantzaketa egokia lortzeko oztopo izatera iristen baitira. Beharrezkotzat jotzen da finantzaketa-modu osagarri berriak bilatzea, eta, horrez gain, **udala inplikatzeari** baliabide gutxien dituzten pertsonen partaidetzarako finantza-laguntzan, bai eta dirulaguntzen konplexutasun digitalen eta administratiboen zailtasunak konpontzeko ere.

13.- HARREMANAK AURREZ – AURREKOAK ETA DIGITALAK

Zentroak eta adinekoak **baliabidez hornitzearen** garrantzia ikusten da, gizarteak egin duen aldaketa handiaren aurrean egokitzapen-prozesuan aurrera egiteko. **Oinarrizko ezagutzak eskuratzeko prestakuntza** eta baliabideak jasotzeko beharra aipatzen dute. Topaketen, bileren eta online izapideen aurrean, aurrez aurreko izapideen arteko oreka bilatzearen garrantzia ere aipatzen dute.